

ZUMAIA / Liburuek zaintzailea behar dute. Udal Liburutegirako lan poltsa osatzeko lehiaketa oposaketa egingo du Udalak

Aitor Manterola.

Udal Liburutegirako lan poltsa behar du Udalak, eta lehiaketa oposaketa antolatu du behar duen behargin hori aukeratzeko. Parte hartzeko epea zabalik da, eta interesa duenak maiatzaren 24a arteko tartea dauka eskaerak udal bulegoetan aurkezteko.

Aldi baterako beharrak betetzeko lanpostua da lehiaketara atera dutena, eta Liburutegiko eta Artxiboko laguntzailearen eszedentziak, oporren ordezkapenak, eta antzekoek sortutako hutsuneak betetzeko da. Lanaldi osoko jarduera izango da, eta ordutegia zerbitzuaren beharren arabera moldatuko da.

Egin beharko dituen lanak zehazten ditu Udalak atera dituen oinarrien zerrendak, eta besteak beste, zeregin hauek egingo ditu: liburutegi zerbitzua kudeatu, fondoak eguneratu eta mantendu, erabiltzaileei zerbitzua eman, eta Udal Artxiboa kudeatu.

Lehiaketara aurkezteko hainbat baldintza betetzea ezinbestekoa da. Euskara mailari dagokionez, 4. Hizkuntz Eskakizuna eskatuko dute, bainamaila hori duen hautagairik ez balego, 3. HE eskatuko lukete. Gainontzeko baldintzak hauek dira: eskabideak aurkezteko epean 18 urte beteta izatea; Bibliotekonomia eta Dokumentazioa diplomatura titulua, bestelako diplomatura edo erdi mailako titulua izan, edo horietakoren bat eskuratzeko eskabidea ordainduta izatea.

Proba ugari eta merituenak

Eskabidea beteta ematearekin batera, NAEren fotokopia, tituluarena eta lanpostuaren hizkuntz eskakizuna egiaztatzen duena aurkeztu beharko dira. Behin eskari guztiak aztertuta, Udalak aukeratutakoen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, eta zerrenda horri erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio. Behin betiko zerrenda osatu orduko ekingo zaio lehiaketa oposaketari, eta bi ariketa egin beharko dituzte. Ondoren, epaimahaiak erabakiko du puntuaziorik altuena nork atera duen, eta norberaren merituei gehituta, Udal Liburutegiko lanpostua eskuratzeko duena izendatuko dute.